

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

303/2017 Foru Agindua, urriaren 26koa, baliozkotzen duena irailaren 6ko 250/2017 Foru Agindua, eta, horrenbestez, onartzen duena Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren uztailaren 20ko 226/2017 Foru Aginduan, Aiarako udal planeamenduko arau subsidiarioen 7. aldaketaren espedientea baldintzekin behin betiko onartzen duenean, ezarritako baldintzak bete izana

AURREKARIAK

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren uztailaren 20ko 226/2017 Foru Aginduaren bitartez, behin betiko onartu zen, baldintzekin, Aiarako udal planeamenduko arau subsidiarioen 7. aldaketaren espedientea; bertan jasotako baldintzak ez ziren funtsezkotzat jo, eta, hortaz, zuzendu ondoren espedientea Foru Aldundira bideratzea ezarri zen; ez da beharrezkoa izan berriz ere jendaurreko informazio izapidea betetzea, egin daitekeela ezarri eta diligentziak egin eta argitaratze aldera.

Bigarrena. Espedientea behin betiko onartu zuen aginduan eskatutako zuzenketari buruzko dokumentazioa 2017ko abuztuaren 9an jaso zen Aldundiko Erregistroan, paperean eta euskarri digitalean, Aiarako Udalaren bitartez.

Hirugarrena. Irailaren 6ko 250/2017 Foru Aginduaren bitartez, betetzat jo ziren aipatutako uztailaren 20ko 226/2017 Foru Aginduan ezarritako baldintzak.

Laugarrena. 250/2017 Foru Agindua argitaratu beharra betetzeari ekin aurretik, forma akats bat zegoela antzeman zen, aipatutako dokumentazioa Arespalditzako Administrazio Batzarrak igorri baitzuen, horretarako legez betebeharra zeukan Aiarako Udalak igorri beharrean.

Bosgarrena. 2017ko urriaren 5ean Aiarako udal planeamenduko arau subsidiarioen 7. aldaketaren espedientearen testu bategina jaso zen Aldundiko Erregistroan, kasu honetan Aiarako Udaleko alkateak igorrita.

OINARRIAK

Lehenengoa. Espedientean jasotako dokumentazioa aztertu ondoren, Arespalditzako Administrazio Batzarrak abuztuaren 9an aurkeztutako dokumentazioa zein Aiarako Udalak urriaren 5ean sail honetan aurkeztutako dokumentazioa berdina direla ikusi da, eta aurrekarietan aipatutako 226/2017 Foru Aginduan ezarritako baldintzak betetzeko balio dute.

Bigarrena. Erreferentziazko espedientean ageri denez, Udal planeamenduko arau subsidiarioen 7. aldaketa behin betiko onartzeko Foru Agindua betetzeko balio duen dokumentazioa prestatu eta Aldundiaren aurrean aurkezteko betebeharra Aiarako Udalari dagokio.

Hirugarrena. Arabako Foru Aldundiak, Aiarako Udalak eta Arespalditzako Administrazio Batzarrak modu bateratuan pairatutako zenbait akats burokratiko metatzearen ondorioz, sail honek ulertu zuenez abuztuaren 9an Aldundi honen Erregistro Nagusian aurkeztutako dokumentazioa egokia zen zuzenketa betebeharra betetzeko; ez zen antzeman Arespalditzako Administrazio Batzarrak prestatu eta Aiarako Udaletik igorritako dokumentazioan ez zirela aplikatu udal teknikarien eginbideak, eta bidalketa agiria ez zegoela udal organo eskudunak sinatuta.

250/2017 Foru Aginduan, irailaren 6koan, Arespalditzako Administrazio Batzarrak aurkeztutako dokumentazioaren bitartez ezarritako baldintzak betetzea onartzekoan, antzemandako gabedia prozedura akats bat egitean datza, hain zuzen ere agindu horri egintza deuseztagarri

izateko ezaugarria eman zitzaiolako, baina ez zenez jakinarazi eta argitaratu, barne administrazio ondorioak baino ez ditu izan, Aldundiaren barruan. Ez ditu eragin helburutzat zituen ondorio juridikoak, are gehiago aintzat hartzen badugu ez dela argitaratu eta hirigintza plangintzako tresnak bete ahal izateko argitaratu egin behar dira, ezarritako moduan eta baliabideen bitartez. Hortaz, horretarako zilegitasuna duen erakundeak eraginkortasuna baliogabetu dezake, hau da, Foru Aldundiak berak.

Laugarrena. Aiara udalerriko alkateak urriaren 4an igorritako dokumentazioak 226/2017 Foru Agindua betetzeko balio izan du; horrenbestez, espedientean antzemandako prozedura akatsa zuzendu egin da. Administrazio zuzenbidean ordenamendu juridikoko arau hausteak ez dakar erabat baliogabea izatea, egintzen zaintza printzipioa nagusitzen da (*favor actii*), eta prozesu ekonomiaren printzipioaren beste adierazpen bat baino ez da; hortaz, horrelakoe-tan baliozkotzea aplikatu behar da, urriaren 2eko 39/2015 Legean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenean, 52. artikuluan aurreikusi zena; bertan ageri denez, "egintza deuseztagarriak baliozkotu ahal izango ditu Administrazioak, haien akatsak zuzenduz"; hortaz, egintza baliozkotzeko eskumena egintza bera eman zuen organoak dauka, eta egintza zuzentzailea ematen den unetik hasiko da ondorioak izaten.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Irailaren 6ko 250/2017 Foru Agindua baliozkotzea, eta, horrenbestez, betetzat jotzea Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren uztailaren 20ko 226/2017 Foru Aginduan, Aiarako udal planeamenduko arau subsidiarioen 7. aldaketaren espedientea, baldintzekin, behin betiko onartzen duenean, ezarritako baldintzak.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea, hirigintza araudiarekin batera.

Hirugarrena. Administrazio bidea agortzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urriaren 26a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

**AIARAKO UDALERRIKO PLANEAMENDUKO ARAU
SUBSIDIARIOEN 191. ARTIKULUAREN TESTU BERRIA****191. artikulua. Baimendutako erabilerak**

– Bizitegiak: (berezko erabilera)

– Energia baliabideak ez diren lehen sektoreko baliabideak ekoiztea. (erabilera bateragarria)

* Nekazaritza (1.1).

Negutegiak eta mintegiak baimentzen dira.

Autokontsumorako oinarrizko jarduerak (1.2.1) eraikin esklusiboan.

* Ekoizpen industrialak: (erabilera bateragarria)

Nekazaritzako eta basogintzako industriak (2.2.3.1.) eraikitako metro koadroko 0,05 kW baino gutxiagoko potentzia, bakartutako norbere eraikinean baino ez eta 200 metro koadro baino gutxiago badu.

Artisautza eta arte lanbideak (2.3), nola behe solairuan hala eraikin esklusiboan (atxikia, mehelinduna edo bakartua)

* Biltegiak eta handizkako merkataritza: (erabilera bateragarria)

Baimenduta daude nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzari lotutako biltegiak (3.1.1), nola eraikineko behe solairuan, batez ere bizitegitarakoetan, hala eraikin esklusiboan (bakartua).

Baimenduta dago nekazaritzako makinak eta ekoizkin bilketa eta erakusketa.

Baimenduta daude, halaber, animalia eta landare produktu eraldatu gabeen biltegiak eta handizkako salerosketak (3.2.2.). (norbere eraikin atxiki, mehelindun edo bakartuetan baino ez).

Ekipamendua

Baimenduta dago kultura informazioa (4.2.1), nola behe solairuan hala eraikin esklusiboan (atxikia, mehelinduna edo bakartua) Natura erakusketa (4.2.2) lurzati independenteko eraikin esklusiboan baino ez da baimentzen.

Aisialdi eta ikuskizun erabilerak direla eta, baimendu egiten dira aisialdi jarduerak, parte-hartzea eskatzen (4.3.1) (azokak (1), etab.) zein eskatzen ez dutenak, nola batez ere bizitegitarako eraikinetako behe solairuetan hala eraikin esklusibo bakartu, atxiki edo mehelindunetan.

(1) Eraikin eta lurzati ekipamendu orokorren sistema orokorren erabilera bateragarrietatik kanpo gelditzen da jolas-parkearen erabilera xehatua.

Onartu egiten dira, ordea, kirol (4.6.), erlijio (4.7.) eta hilerri (4.11) erabilerak, baina, norbere lurzatiarako eraikin esklusiboetan baino ez. Hilerria bakartuta egongo da.

Bateragarriak dira, halaber, erabilera hauek: hezkuntza (4.1.), osasuna (4.4), administrazioa (4.8), babesak eta herritarren segurtasuna (4.9) eta hiri zerbitzuak (4.10), beti ere eraikin esklusibo eta bakartuetan.

Hirugarren sektorea

Onartu egiten dira bulegoak (5.1), saltokiak (5.2.) eta ostalaritzari lotuak (5.3.), nola batez ere bizitegitarako eraikinetako behe solairuetan hala eraikin esklusibo bakartu, atxiki edo mehelindunetan.

Lorategiak

84. artikuluan jasotako erabilera guztiak baimentzen dira